

## LH1

Ikastolara sarrera ate Nagusitik egingo da (Arkutik), eta idazkaritza ondoko sarreratik Harmailetara joan beharko da. Ikasleak/familiak markatutako lekuan zain egon beharko dira dagokion segurtasuna tartea errespetatuz.

Eguerdian etxera bazkaltzera joaten diren ikasleentzako itxarongunea, irteera eta sarrera aipatutako leku beretik egingo dira.

### IRAILAK 7-11 BITARTEAN.

Aste honetan zehar, ikasleak 9:00-9:15 bitartean sartuko dira geletara, itxaron gunean egon beharko dira eta Tutoreak gerturatuko dira itxaron guneetara ikasleak jaso eta entregatzera. Bitartean segurtasun protokoloa beteko da.

- Horretarako garrantzitsua da aipatutako orduan egitea sarrera, ez arinago ez beranduago.
- Ikasleak lagunduta badatoz (familia, zaintzaile...), laguntzaile bakarrak etorriko dira.
- Ikaslea orduz kanpo badator, idazkaritzatik sartuko da, tenperatura hartuz eta eskuak garbituz.

Ikasleak eguerdian, 12:30 aterako dira klasetik. Ikaslea BAZKALTZEN GELDITZEN BADA irteera 14:30tan izango da, markatutako ibilbide berdinetik.

Behin umea hartuta, ezin izango da ikastolan gelditu.

### SARRERA-IRTEERA



### ITXARON GUNEA FAMILIENTZAT

